

3. unitatea: Ordiziako azokan
Helburua: lagun bati asteburuan zer egiten duen kontatzea ahoz. Ohiturazkoa lantzea. Urtaroen eta hilen izena ikastea.

Izozki dendan

1.- Eguraldi ona egin al du egun horietan?

- a) Bai, eguraldi ona egin du. **EGIA**
- b) Ez, ez du eguraldi onik egiten.

2.- Zenbat zapore desberdin dituzte?

- a) Hogei
- b) Berrogei zapore desberdin dituzte. **EGIA**
- c) Orain hoge; udan, berrogei.

3.- Zein zapore jaten du jendeak?

- a) Limoia
- b) Txokolatea
- c) Klasikoak **EGIA**

4.- Jendeak nahasten al ditu zaporeak?

- a) Ez, ez ditu nahasten.
- b) Bai, nahasten ditu. **EGIA**

5.- Zergatik nekatzen da Arantxa?

- a) Lan gogorra delako.
- b) Zutik egoten delako. **EGIA**
- c) Hotza egiten duelako.

6.- Norena da denda?

- a) Arantxarena
- b) Familiarena **EGIA**

7.- Neguan egunero irekitzen dute denda?

- a) Bai
- b) Ez, astelehenetan itxi egiten dute.
- c) Ez, asteburuetan bakarrik. **EGIA**

8.- Zer egiten du oporretan?

- a) Lasai-lasai ibiltzen da. **EGIA**
- b) Izozkiak jaten ditu.
- c) Mendira joaten da.

Transkripzioa

- Iritsi da uda eta eguraldi ona ere bai. Eguraldi ona iristen denean, jendeak oso gustura jaten du izozkia. Guk ere horixe egin dugu: izozki-dendara joan eta izozkia jan, eta bidez batez, Arantxa Urrusolori galdera batzuk egin.
- Arratsalde on, Arantxa!
- Baita zuei ere!
- Eguraldi ona izan dugu egun hauetan, igartzen al da hori zuen dendan?

3. unitatea: Ordiziako azokan

Helburua: lagun bati asteburuan zer egiten duen kontatzea ahoz. Ohiturazkoa lantzea. Urtaroen eta hilen izena ikastea.

- Jakina! jende gehiago etortzen da eta gehiago saltzen dugu.
- Zenbat zapore dituzue?
- Denak esan behar ditut? Beno, berrogei, gutxi gorabehera.
- Zein jaten du jendeak gehien?
- Ba, limoia... txokolatea, bainila, betikoak.
- Zein dira zapore arraroenak?
- Gazta, asuna...
- Eta jaten al ditu jendeak?
- Bueno, hemen oso klasikoak gara, baina, gaztarena oso ondo saltzen dugu, oso goxoa da gainera!
- Eta jendeak nahasten ditu zaporeak?
- Bai, bai, limoi, gazta eta txokolatea oso goxoa geratzen da.
- Eta asko nekatzen al zara hemen?
- Ba, egia esanda, bai, zutik egoten naizelako, eta askotan bero handia egiten duelako. Baina, gustura nago, heladeria familiarena da eta...
- Eta neguan? Zer egiten duzue?
- Neguan asteburuetan bakarrik irekitzen dugu, larunbat eta igandeetan. Ez dugu asko saltzen, baina...
- Eta zuk zer egiten duzu oporretan? Ikasi?
- Ez, ez, lasai-lasai ibiltzen naiz. Deskantsatu egiten dut. Udako lana oso gogorra da. Zortzietan irekitzen dugu denda eta gaueko hamabietan itxi. Jende asko ibiltzen da eta nahiko okupatuta ibiltzen gara.
- Bueno, Arantxa, eskerrik asko, eta jarri, mesedez, gazta eta limoizko izozki handi bat.